



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko urriaren 26a

119. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 10-22/MOC-00085. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konpromiso publikoa har dezan Nafarroako ekintza eta esku-hartze sozialeko hitzarmen sektorialetik eratorritako aurrekontu-partidak finantzatzeko. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- 10-22/MOC-00094. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “leihatila” fisiko bat ireki dezan herritarrei energia-merkatuan dauden errealitate ezberdinei buruzko informazioa emateko, gai horien gaineko aholkularitza eskaintzeko eta kontratuak eraldatzeko behar diren izapideak egiten laguntzeko. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- 10-22/MOC-00096. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da biriketako minbiziaren detekzio goiztiarrerako berariazko programa pilotu bat ezar dezan, hura modu orokorrean ezartzearen egingarritasuna eta kostua-eraginkortasuna ere baloratuko dituen. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- 10-22/MOC-00097. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen du erabakitasunez sustatu eta lagundu dezan energia-proiektu berriztagarriak ezartzea. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- 10-22/MOC-00074. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluan negoziata eta adostu ditzan lan-istripuen aurkako neurri berriak eta ekintza osagarriak. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak onetsia (4. or.).
- 10-22/MOC-00084. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ibilbide osasungarriak sor ditzan hiriguneetan, aldirietan eta landaguneetan. Kultura eta Kiroleko Batzordeak onetsia (5. or.).
- 10-22/MOC-00069. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2023ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren izapidetzean zerga erreformari buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan, PFE-Zaren kargen eskalako likidazio oinarrien deflaktazioa, inflazioaren araberakoa, edukiko duena. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).
- 10-22/MOC-00095. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da bere babesa eman diezaion Memoria Demokratikoari buruzko Legeari eta Espainiako Gobernua premiatzen da abian jar ditzan onetsitako legean diren neurri guztiak. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/MOC-00085. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konpromiso publikoa har dezan Nafarroako ekintza eta esku-hartze sozialeko hitzarmen sektorialetik eratorritako aurrekontu-partidak finantzatzen segitzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko urriaren 20an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konpromiso publikoa har dezan Nafarroako ekintza eta esku-hartze sozialeko hitzarmen sektorialetik eratorritako aurrekontu-partidak finantzatzen segitzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du funtsezkoa den sektore honentzako lan-araubidea, ezbaian dauden egitate juridikoetan sartu gabe. Hori dela-eta, beharrezkotzat jotzen du plantillek hitzarmen berekia izan dezatela, bai lan-harremanei bai gizarte-zaugarritasun edo -

arriskuan dauden herritarrei ematen zaizkien zerbitzuei kalitatea eta egonkortasuna emanen diena.

2. Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konpromiso publikoa har dezan hitzarmenetik eratorritako aurrekontu-partidak finantzatzen segitzeko, baita hitzarmen horren deuseztasuna judizialki aldarrikatuko balitz ere.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konpromisoa har dezan, deuseztasuna deklaratu izatearen kasuan, agente aktiboa izateko eta hitzarmen berri baten negoziazioa finantzatzeko, orain arte egin duen bezala eta baldintza beretan”.

Iruñean, 2022ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00094. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “leihatila” fisiko bat ireki dezan herritarrei energia-merkatuan dauden errealitate ezberdinei buruzko informazioa emateko, gai horien gaineko aholkularitza eskaintzeko eta kontratuak eraldatzeko behar diren izapideak egiten laguntzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko urriaren 20an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “leihatila” fisiko bat ireki dezan herritarrei energia-merkatuan dauden errealitate ezberdinei buruzko informazioa emateko, gai horien gaineko aholkularitza eskaintzeko eta kontratuak eraldatzeko behar diren izapideak egiten laguntzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du

1.- “Leihatila” fisiko bat ireki dezan herritarrei energia-merkatuan dauden errealitate ezberdinei buruzko informazioa emateko, gai horien gaineko aholkularitza eskaintzeko eta kontratuak eraldatzeko behar diren izapideak egiten laguntzeko.

2.- Sortutako zerbitzu berria leku, giza baliabide eta baliabide material eta zuzkidura ekonomiko egokiz hornitu dezan, bere eginkizunak gauzatu ahal izateko.

3.- Hedapen-kanpaina bat egin dezan, herritarrei jakinarazteko zerbitzu berria abiarazi dela”.

Iruñean, 2022ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00096. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da biriketako minbiziaren detekzio goiztiarrerako berriazko programa pilotu bat ezar dezan, hura modu orokorrean ezartzearen egingarritasuna eta kostua-eraginkortasuna ere baloratuko dituen.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko urriaren 20an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da biriketako minbiziaren detekzio goiztiarrerako berriazko programa pilotu bat ezar dezan, hura modu orokorrean ezartzearen egingarritasuna eta kostua-eraginkortasuna ere baloratuko dituen”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Foru Komunitatean biri-

ketako minbiziaren antzemate goiztiarrerako berriazko programa pilotu bat ezar dezan al bait azkarren, kostu-eraginkortasuna eta Nafarroan modu orokorrean ezartzeko egingarritasuna baloratuko dituen.

2. Nafarroako Osasun Sistemak parte hartu eta lan egingen du biriketako minbiziaren baheketa Nafarroan abiatzeko, estatukoa nahiz bertakoa den edozein ekimenetan, beti sistema publikoaren bidez, minbizia detektatu eta prebenitzeko erantzun eraginkorragoa eta berdintasunagoa emate aldera”.

Iruñean, 2022ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00097. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen du erabakitasunez sustatu eta lagundu dezan energia-proiektu berriztagarriak ezartzea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko urriaren 20an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen du erabakitasunez sustatu eta lagundu dezan energia-proiektu berriztagarriak ezartzea”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du erabakitasunez sustatu eta lagundu dezan energia-proiektu berriztagarriak ezartzea, garapen jasangarriarekin bateragarriak diren ingurumen-eskakizun guztiekin bat, betiere lehiakortasun handiagoa ekarri eta etorkizuneko elektrizitate-fakturaren kostuak arintzen badituzte”.

Iruñean, 2022ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00074. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluan negoziata eta adostu ditzan lan-istripuen aurkako neurri berriak eta ekintza osagarriak.

GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Batzordeak, 2022ko urriaren 18an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluan negoziata eta adostu ditzan lan-istripuen aurkako neurri berriak eta ekintza osagarriak”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Lan Osasunaren Kontseiluan negoziata eta adostu ditzan lan-

istripuen aurkako neurri berriak eta ekintza osagarriak.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du, Lan Ikuskatzailtzak Foru Komunitatean dituen balia bideak eta plantilla handitu ditzan, kontrol handiagoa bermatze aldera enpresek laneko arriskuen prebentzioaren arloko legeria betetzeari dagokionez.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du neurri eraginkorrek ezar ditzan, lan-arriskuak prebenitzeko araudia betetzen dela bermatzekoak”.

Iruñean, 2022ko urriaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00084. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ibilbide osasungarriak sor ditzan hiriguneetan, aldirietan eta landaguneetan.

KULTURA ETA KIROLEKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko urriaren 20an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ibilbide osasungarriak sor ditzan hiriguneetan, aldirietan eta landaguneetan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Toki administrazioekin eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin lankidetzan aritu dadin Nafarroako Foru Komunitateko hiriguneetan, aldirietan eta landaguneetan ibilbide osasungarri eta seinaleztatuak atontzeko, jarduera fisikoaren lagungarri, zientzia- eta kirol-parametroetan oinarrituak, beharrezko baliabide materialez hornituak eta gai honetan nazio-mailako nahiz nazioarteko erakunde eta entitate garrantzitsuenek emandako gomendioei jarraikiz (OME, Osasun Ministerioa eta Kirolaren Kontseilu Nagusia).

2. Ibilbide horiek diseina eta planifika ditzan lurralde osoan zehar estrategikoki banatuak egoteko, halako moldez non nafar guztiek ibilbide horietako bat beren ohiko bizilekutik hurbil izanen

baitute eta ibilbide horiek erregulartasunez erabili ahal izanen baitituzte.

3. Azter dezan ekimen hau sektore publikoaren eta pribatuaren arteko elkarlanean aurrera eramateko modua, beste hiri, erkidego eta herrialde batzuetan egin ohi den bezala, non ibilbide hauek entitate desberdinen sostengu logistiko eta ekonomikoa izaten baitute, gizarte-ongizatearen eta jarduera fisikoa sustatzearen mesedetan.

4. Ekimen horiek egin daitezten horretarako oinarri hartuta Espainiako Udal eta Probintzien Federazioak eta Espainiako Hiri Osasungarrien Sareak egindako gida, Ibilbide Osasungarrien Plan bat taxutu, ezarri eta ebaluatzekoa. Halaber, ekimenak lerrokatuta egon behar du Zahartze Aktibo eta Osasungarrirako Nafarroako 2017-2022 Estrategiarekin.

5. Planifikazio hori gara dadin honako hauen laguntza eta parte-hartzearekin: herritarrak; eremu bakoitzeko kirol-klubak; erretiratuen eta pentsiodunen elkarteak; emakumeen elkarteak; kultur elkarteak; eskolak, ikastetxeak eta unibertsitateak... baita eremu bakoitzeko osasun-zentroak ere".

Iruñean, 2022ko urriaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00069. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2023ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren izapidetzean zerga erreformari buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan, PFEZaren kargen eskalako likidazio oinarrien deflaktazioa, inflazioaren arabera-koa, edukiko duena.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko urriaren 20an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2023ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren izapidetzean zerga erreformari buruzko foru lege proiektu bat aurkez dezan, PFEZaren kargen eskalako likidazio oinarrien deflaktazioa, inflazioaren arabera-koa, edukiko

duena. Mozioa Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu zuen eta 2022ko irailaren 6ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00095. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da bere babesa eman diezaion Memoria Demokratikoari buruzko Legeari eta Espainiako Gobernua premiatzen da abian jar ditzan onetsitako legean diren neurri guztiak.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko urriaren 20an egindako bilkuran, honako mozio hau ezetsi du: "Horren bidez, Nafarroako Parlamentua premiatzen da bere babesa eman diezaion Memoria Demokratikoari buruzko Legeari eta Espainiako Gobernua premiatzen da abian jar ditzan onetsitako legean diren neurri guztiak.

Mozioa Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu zuen eta 2022ko urriaren 18ko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

